

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak energia berriztagarrien eta garapen iraunkorraren aldeko apustua aurkeztu du Argentinan

Barkos Lehendakariak nabarmendu du Foru Komunitatea leku "erakargarria" dela inbertitzeko, "konfiantza ematen duten" datu ekonomikoak izateagatik

Ostirala, 2018.eko abenduak 7

Nafarroak bere garapen ekonomikoa eta energia berriztagarrien arloan duen kokapen nabarmena aurkeztu ditu Buenos Airesen, azken arlo horretan Foru Komunitatea aitzindaria da-eta. Hori izan da Argentinara egiten ari diren bisita instituzionalaren bigarren eguneko elementu nagusia. Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak Buenos Airesko Merkataritza Burtsan egin zuen aurkezpena, eta, aurretik, hango lehendakariak, Adelmo J.J. Gabbik, harrera egin zion Nafarroako ordezkariari. Ekitaldian, Barkos Lehendakariak gain, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak, Izaskun Goñik, hartu zuen parte.



Lehendakariak esku hartu zueneko une bat Buenos Airesko Merkataritza Burtsan.

Lehendakariak Foru Komunitatearen ezaugarrien berri eman zien Argentinako enpresa-sektoreko ordezkariari, eta, eskualde txiki samarra den arren, "Europako aurreratuenetariko bat dela nabarmendu zuen, Europako batez bestekoa baino per capita errenta %14 handiagoarekin, eta langile kualifikatuei dagokienean, Europako 271 eskualdetatik 19. postuan dagoela" esan zuen. Halaber, zorraren kalifikazioa Espainiakoarengandik bi puntu gorago aurkitzen dela gehitu zuen, eta ekonomiaren hazkundearen inguruan, ondorengoa aurreratu zuen: "aurten, aurreikuspenen arabera, %2,7ko hazkundera izango dugu, baina guk %3,3a lor dezakegula uste dugu, hasierako ikuspegi hori hobetuaz".

Uxue Barkosek esan zuen industria-izaerari esker, Nafarroak beste ekonomia batzuek baino narriadura txikiagoa jasan duela krisian zehar, "eta enplegua sortzen du batez bestekoa baino soldata altuagoekin. Gainera, gure per capita errenta altuak, gure autonomia fiskalarekin batera, kontu saneatuak izaten laguntzen digu politika publikoetan inbertitu ahal izateko, gure gizartea kohesionatuago mantentzearen".

Ildo horretan, Lehendakariak honako hau gehitu zuen: "gure garapen

ekonomikoaren ereduarekin Nafarroa kohesionatua, iraunkorra, osasungarria, industrialia eta lehiakorra bultzatzen dugu”, horiek baitira Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren (S3) lehentasunak markatzen dituzten bost ardatzak. Modu horretan, helburuak azaltzeaz gain, horietako bakarren batean aurrerapen garrantzitsuak sumatzen direla nabarmendu zuen; hala nola, iraupen luzeko langabezia murriztea, 2020rako ezarritako aurreikuspenak dagoeneko gainditu dira-eta.

Nafarroako Lehendakariak, halaber, I+G+b arloa gogora ekarri zuen. Ikerketan egiten duten inbertsioa 2015az geroztik %80 baino gehiago gehitu da, hazkunde-ereduari oreka handiagoa emanaz. Barkosek, hitzaldiari amaiera emateko, “Nafarroak, egun, konfiantza ematen duten datu ekonomikoak dituela eta inbertitzeko erakargarria dela” esan zuen.

Ekitaldiaren amaieran Izaskun Goñik hartu zuen parte, eta etorkizunerako hainbesteko proiektzioa duen sektorean, hots, energia berriztagarrien arloan, Nafarroak duen kokapen aitzindarian eta puntakoan oinarritu zen. Hain zuzen ere, Politika Ekonomikoko zuzendari nagusiak gai hori jorrazteko aukera izan zuen Sebastian Kind-ekin, energia berriztagarrien estatu-idazkariordearekin, aurrez egindako topaketan.



Nafarroako ordezkariak Argentinan Estatu Terrorismoaren biktimei eskainitako Monumentuaren ondoan.

Memoriaren Parkera bisita

Barkos Lehendakariak eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Ana Ollo kontseilariak Memoriaren Parkea ere bisitatu dute Argentinako hiriburuan. Han, Nora Hochbaum zuzendariak hartu ditu, eta haiekin batera ibilbidea egin du.

Memoriaren parkea “Estatuko terrorismoak, 70eko hamarkadan eta 80ko hamarkadaren hasieran, atxilotu eta desagertu eta eraildakoen omenez sortutako espazioa da. “Bertara joaten diren egungo eta etorkizuneko belaunaldiek izugarrikeria horien gaineko kontzientzia hartzeko eta horrelako gertaerak berriro ere inoiz ez gertatzeko premia jabetzeko helburuarekin” sortu zuten.

Memoriaren Parkean Estatu Terrorismoaren Biktimei egindako Monumentua aurkitzen da, 2007ko azaroaren 7an inauguratua. Bertan, ormigoizko lau hilarri daude, Estatuak gauzatutako indarkeriaren biktimak izandako 8.717 gizon, emakume eta haurren izenekin grabatutako plakekin.

Bisitaren ondoren, Ana Ollo kontseilariak nabarmendu du “garrantzitsua dela memoriaren gaineko politika publikoak partekatzea, iraganari begirada kritikoa eginaz, bakearen kulturaren elkarrekin bizitzearen aldeko apustua erakutsi dezaten. Ildo horretan, Buenos Airesko parkea eta Sartagudako memoria-parkea izuarekin eta bidegabeko eta legez kontrako indarkeriarekin loturiko lekuak dira. Baina, leku horietan, hala ere, memoriaren ondarea zaindu nahi da, biktimak ohoratu, familiak gogoan hartu eta etorkizuneko belaunaldiei bakearen, bizikidetzaren eta errespetuaren balioak transmititu”.

Barkos Lehendakariak, Buenos Airesko egonaldiari amaiera emateko, "Laurak bat" Euskal Etxeak egindako eskaera ofiziala bete du; alegia, haien instalazioak bisitatzea. Laurak Bat 1877. urtean sortu zuten, eta sortzaileen artean hainbat nafar ageri dira; gaur egun, gainera, bazkideen %25a nafar jatorrikoa da.

Buenos Airestik Rosariora joango da Nafarroako ordezkariak, Argentinan dauden nafarren presentzia zuzenean ezagutzera eta, asteburuan, hiri horretan egingo den Nafarroako Elkartearen topaketan parte hartzera.

Galería de fotos



Barkos Lehendakaria Buenos Airesko Merkataritza Burtsako Adelmo J.J. Gabbi lehendakariarekin.



Barkos Lehendakaria eta laguntzaileak "Laurak Bat" Euskal Etxean.



Barkos Lehendakaria eta Olo kontseilaria Buenos Airesko Memoriaren Parkeko zuzendariaren, Nora Hochbaum-en, azalpenak entzuten.



Energia berriztagariak Lehendakariaren hitzaldiko elementu nagusietariko batzuk izan ziren.



Memoriaren Parkeko monumentuan, Argentinan Estatu Terrorismoaren biktimen izenak idatzita daude.



Nafarroaren aurkezpenera joandako publikoaren ikuspegia.